# BESTELAKO XEDAPENAK

## INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

## 4991

*EBAZPENA, 2008ko apirilaren 18koa, Ingurumeneko sailburuordearena, totxo-ijezketa, zumitz-ebaketa eta –desugertze, eta hodi-ekoizpen eta -galbanizazioko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Gasteizko udalerrian (Araba) Laminaciones Arregui SL enpresak sustatua.*

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, Juan Antonio Veristain Arteche jaunak, Laminaciones Arregui SL enpresaren izenean eta hau ordezkatuz Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) totxo-ijezketa, zumitz-ebaketa eta –desugertze, eta hodi-ekoizpen eta -galbanizazioko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Vitoria-Gasteizko Udalak 2006ko maiatzaren 12an eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta dokumentazio tekniko hau aurkeztu zituen: «Oinarrizko proiektua: memoria, eranskinak, planoak eta laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua)».

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Laminaciones Arregui SL enpresak, besteak beste, altzairuzko hodien galbanizazioa instalatzeko (hedatzea) 1997ko irailaren 11ko jarduera-lizentzia eta altzairuzko zumitz-bobinen biltegia instalatzeko 1999ko apirilaren 8ko jarduera-lizentzia zituen. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: ibaitik ura hartzeko baimena, 1975eko martxoaren 1ekoa, eta kolektorera isurtzeko baimena, gainazaleko uren aprobetxamenduan eta saneamendu-sistema integralera isurtzeko indarreko araudian xedatutakoaren arabera.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari egin zitzaien kontsulta.

2007ko apirilaren 4an eta 2007ko urriaren 18an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko azaroaren 7an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Laminaciones Arregui SL enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 31n, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Laminaciones Arregui SL enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpen Proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Laminaciones Arregui SL enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin-urak ibilgura isurtzeko baimena, hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena, industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Laminaciones Arregui SL enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan da Teknika Erabilgarri Egokienen erabilera. Zehazki, Europako Batzordearen 2001eko abenduko Reference Document on Best Available Techniques

in the Ferrous metal processing industry, 2005eko iraileko Reference Document on Best Available Techniques in the Treatment of Metals and Plastics, 2001eko abenduko Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems, 2006ko apirileko zirriborro-data duen Reference Document on Best Available Techniques on Energy Efficiency eta 2006ko uztaileko Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage BREF txostenen edukia hartu dute kontuan.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Laminaciones Arregui SL enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 28an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Gasteizko udalerriko (Arabako Lurralde Historikoa) Osinagea kalean, z/g duen eta IFK B-01218932 zenbakia duen Laminaciones Arregui SL enpresari Gasteizko udalerrian totxo-ijezketa, zumitz-ebaketa eta -desugertze, eta hodi-ekoizpen eta -galbanizazioko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematea, Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa, 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 2.3 kategorian «Metal ferrosoak eraldatzeko instalazioak»; honen barruan daude 2.3 a) atala «Beroko ijezketa orduko 20 tona altzairu gordin baino gehiago ekoizteko gaitasunarekin» eta 2.3 c) atala «Metal urtuzko babes-geruzak aplikatzea, orduko 2 tona baino gehiagoko altzari gordina tratatzeko ahalmena dutenak», eta 2.6 epigrafea «Metalen eta plastikozko materialen gainazala prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 $m^3$-tik gorakoa denean».

Laminaciones Arregui SL enpresaren instalazioak Gasteizko udalerrian daude, industria-eremu gisa katalogatutako leku batean.

Produkzio-prozesua honako etapa hauek osatzen dute: Totxoa jaso eta gordetzea, ijezketa: Totxoa berriz berotzea eta ijezketa, Ebaketa: Zumitzaren luzetarako ebaketa; instalazioak L1, L2, L4 eta L5 izeneko 4 ebaketa-lerro ditu, Desugertzea: Zumitza desugertzea; bi lerro, Hodia:

Hodiaren konformazioa: AF80, AF81 eta AF82 izeneko 3 lerro eta gauzatzen ari den beste bat, AF-50 lerroa, Galbanizazioa eta Hodiak: Hodi-akaberak eta igortzeak.

Elektrizitatea eta gas naturala dira plantan erabilitako energia-baliabideak. Halaber gasolioa kontsumitzen da ibilgailuetan.

Enpresak 22 foku zarratu ditu, batez ere hodien, galbanizazio-upelen, zink-upelen eta galdaren ekoizpen-lerrotan sortuak. Horietako bi ez-sistematiko gisa sailkatzen dira.

Honako isurketa-puntu hauek identifikatzen dira (kasu guztietan hauen helburua kolektorea da):

● I. isurketa-puntua (labearen izkina):

○ Landako euri-urak eta zumitzeko nabeetako zorrotenetako ura (jario ez-jarraitua).

○ Labearen zirkuitu itxiko urak. Tarteka uda-garaian zirkuitua purgatzen da tenperatura-arrazoiengatik (jario ez-jarraitua). Industria-ur garbiak dira.

○ Ijezketa- eta bulego-eremuetako aldageletako ur sanitarioak.

● Isurketa-puntua II (kalitatea):

○ Neutralizazioko urak (jario jarraitua).

○ Ibaitik sartzen den ur-dekantagailuaren gainezkaldiko ura (jario ez-jarraitua) ibaiko ur dekantatua, iragazia eta hipokloritoa erantsi zaiona da.

○ Arrabolen zirkuituko purgatzeak eta gainezkaldiak (biltegi nagusitik isurtzen da, ura dekantagailutik eta skimmerretik pasa eta legar-iragazkietatik igaro ondoren).

● Isurketa-puntua III (Osinagea).

○ Prebentzio-zerbitzu eta piramide-eraikinetako bulegoen eta hodi inguruko aldageletako ur sanitarioak (jario jarraitua).

○ Galbanizazio-nabe eta komunetako ur sanitarioak eta euri-urak, akaberak, L4-L5 eta AF82.

2001eko abenduko Reference Document on Best Available Techniques in the Ferrous metal processing industry, 2005eko iraileko Reference Document on Best Available Techniques in the Treatment of Metals and Plastics, 2001eko abenduko Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems, 2006ko apirileko Reference Document on Best Available Techniques on Energy Efficiency zirriborroa, eta 2006ko uztaileko Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage, Europako Batzordearen 2005eko maiatzeko Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry izenekoen esparruan teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak eransten ditu proiektuak:

Koipegabetze-etapa bat instalatzea, desugertze-isurketak hartu eta araztea, desugertze-bainuko HCl berreskuratzea, galbanizazio-isurketak hartu eta araztea, tratamendu aurretik eta ondoren piezak eta azalerak gorde eta babestea, prozesuko disoluzioen bero-galerak murriztea, fosfatatze-bainuak garbitu eta birsortzea, lehengaien eta gai osagarrien biltegiratzeen jarioak eta tanta-jarioak biltzeko sistemak, hondakin-uraren beroa berreskuratzea, beste hainbaten artean.

Bigarrena.– Laminaciones Arregui SL enpresak Gasteizko udalerrian (Arabako Lurralde Historikoa) sustatutako totxo-ijezketa, zumitz-ebaketa eta –desugertze, eta hodi-ekoizpen eta -galbanizazioko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Laminaciones Arregui SL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Laminaciones Arregui SL instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Laminaciones Arregui SL enpresaren instalazioak foku hauek ditu, indarrean den araudiaren arabera katalogatuta:

| Foku zk. | Foku-kodea | Isurtze-fokuaren izena | Garaiera | Barruko diametroa | Katalogazioa | | UTM koodernatuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Taldea | Epigrafea | X | Y |
| 1 | 1000240-01 | Totxoa berotzeko labea | 51 | 2600 | C | 3.3.3 | 528194 | 4746359 |
| 2 | 1000240-02 | Berreskuratze-galdara | 18 | 500 | C | 3.3.3 | 528181 | 4746307 |
| 3 | 1000240-03 | Ijezketa-trena | 15 | 1000 | C | 3.3.3 | 528330 | 4746570 |
| 4 | 1000240-04 | Xurgatzea desugertze-upelak | 19 | 550 | C | 3.12 | 528244 | 4746265 |
| 5 | 1000240-05 | Desugertze-galdara | 18 | 450 | C | 3.1.1 | 528299 | 4746567 |
| 6 | 1000240-06 | AF-80 soldadura | 4,5 | 450 | C | 3.12 | 528215 | 4746414 |
| 7 | 1000240-07 | AF 81 soldadura | 7,7 | 450 | C | 3.12 | 528211 | 4746465 |
| 8 | 1000240-08 | AF 82 soldadura | 7,5 | 450 | C | 3.12 | 528588 | 4746641 |
| 10 | 1000240-10 | AF-80 zerra | 4 | 400 | C | 3.12 | 528227 | 4746384 |
| 11 | 1000240-11 | AF-81 zerra | 7,6 | 450 | C | 3.12 | 528218 | 4746348 |
| 12 | 1000240-12 | Desugertze eta galbanizatzeko upela (ezk.) | 19 | 1000 | B | 2.5.2 | 528431 | 4746392 |
| 13 | 1000240-13 | Desugertze eta galbanizatzeko upela (erdi) | 19 | 1000 | B | 2.5.2 | 528432 | 4746393 |
| 14 | 1000240-14 | Desugertze eta galbanizatzeko upela (esk.) | 19 | 1000 | B | 2.5.2 | 528430 | 4746374 |
| 15 | 1000240-15 | Lehortze-labea | 8,7 | 630 | B | 2.5.2 | 528541 | 4746600 |
| 16 | 1000240-16 | Zink-upela | 4,6 | 800 | B | 2.5.2 | 528432 | 4746425 |
| 17 | 1000240-17 | Hodi-puztea | 8,5 | 750 | B | 2.5.2 | 5284325 | 4746424 |
| 18 | 1000240-18 | Galbanizazio-galdara | 20 | 380 | C | 3.1.1 | 528575 | 4746600 |
| 19 | 1000240-19 | AF-50 soldadura | 8,5 | 300 | C | 3.12 | 528310 | 476468 |
| 21 | 1000240-21 | AF-50 zerra | 8,5 | 300 | C | 3.12 | 528286 | 476472 |
| 22 | 1000240-22 | AF-82 zerra | 7,75 | 450 | C | 3.12 | 528407 | 4746442 |

Foku horiez gain, ondoren deskribatzen diren isuri-iturriak ere badaude:

| Foku zk. | Foku-kodea | Isurtze-fokuaren izena | Garaiera (m) | Barne-diametroa (m) | Katalogazioa | UTM koodernatuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | X | Y |
| 9 | 1000240-09D | Sendzimir AF-82 | | | Foku ez-sistematikoa | 528396 | 4746444 |
| 20 | 1000240-20D | Sendzimir AF-50 | 8,5 | 430 | Foku ez-sistematikoa | 528299 | 4746469 |

1000240-09D eta 1000240-20D zenbakidun fokuen isuriak instalazioaren funtzionamendu globalaren % 5 baino gehiago funtzionatzen hasten badira edo ordubete baino epe luzeagotan urtean 12 aldiz baino gehiagotan isurtzen hasten badira, foku gisa erregularizatzeko eskatuko da.

Sustatzaileak 9. fokuaren altuera eta diametroa eman beharko ditu.

Gainera, ondoko instalazioei loturiko isurketa barreiatuak sortzen dira: HCl gordetzeko kanpoko biltegien segurtasuneko haizatzeak eta ijezketa-trena.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

| Fokuak | Substantziak | Isurtzeko muga-balioak |
|---|---|---|
| 1.- Totxoa berotzeko labea | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | 400 mg/Nm$^3$ (% 3 $O_2$) |
| | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| 2.- Berreskuratze-galdara | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | 300 ppm |
| | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| 3.- Ijezketa-trena | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | 300 ppm |
| | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| 4.- Xurgatzea desugertze-upelak | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| | Azido klorhidrikoa (HCl) | 30 mg/Nm$^3$ |
| 5.- Desugertze-galdara | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | 300 ppm |
| | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| 6.- AF-80 soldadura | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| 7.- AF 81 soldadura | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| 8.- AF 82 soldadura | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| 10.- AF-80 zerra | Guztizko partikulak | 150 mg/Nm$^3$ |
| 11.- AF-81 zerra | Guztizko partikulak | 150 mg/Nm$^3$ |
| 12.- Desugertze eta galbanizatzeko upela (ezk.) | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| | Azido klorhidrikoa (HCl) | 30 mg/Nm$^3$ |
| 13.- Desugertze eta galbanizatzeko upela (erdi) | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| | Azido klorhidrikoa (HCl) | 30 mg/Nm$^3$ |
| 14.- Desugertze eta galbanizatzeko upela (eskuin) | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| | Azido klorhidrikoa (HCl) | 30 mg/Nm$^3$ |
| 15.- Lehortze-labea | Guztizko partikulak | 150 mg/Nm$^3$ |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | 300 ppm |
| | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| | Azido klorhidrikoa (HCl) | 30 mg/Nm$^3$ |
| 16.- Zink-upela | Guztizko partikulak | 10 mg/Nm$^3$ |
| | Azido klorhidrikoa (HCl) | 20 mg/Nm$^3$ |
| 17.- Hodi-puztea | Guztizko partikulak | 50 mg/Nm$^3$ |
| 18.- Galbanizazio-galdara | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | 300 ppm |
| | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| 19.- AF-50 soldadura | Guztizko partikulak | 20 mg/Nm$^3$ |
| 21.- AF-50 zerra | Guztizko partikulak | 150 mg/Nm$^3$ |
| 22.- AF-82 zerra | Guztizko partikulak | 150 mg/Nm$^3$ |

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu ko, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu z gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak murrizteko, ijezketa-kutxen irteeran prestatutako xurgatze-sistema bat dute.

Bestalde, isurketak biltzeko eta husteko sistema guztiak behar bezala mantenduko dira eta jarduera hauek gauzatuko dira: instalazioak egunero eta astero garbitzea, kanpoko ateak ixtea, pabiloia orokorrean ixtea, etab., isurtze horiek minimizatzea bermatzeko. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Altzairuzko hodiak fabrikatzea.

Jarduera-taldea: Metala.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-2722.

| Isurketa-puntua | Hondakin-ur mota | Isurketaren jatorria | Ingurune hartzailea | Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak |
|---|---|---|---|---|
| IP 1 (labearen ertza) | Euri-ur zikinak | Landako euri-urak eta zumitzeko nabeetako zorrotenetako ura | Gasteizko udalaren kolektorea | X: 528244 Y:4746092 |
| | Industrialak | Purgatzeak eta labearen zirkuitu itxia hustea | | |
| IP 2 (Kalitatea) | Industrialak | Neutralizatze-instalazioa | Gasteizko udalaren kolektorea | X: 528269 Y:4746120 |
| | | Ibaiaren sarrerako ur-dekantagailuaren gainezkaldiak | | |
| | | Zilindroen zirkuitua purgatzea eta gainezkaldiak | | |

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emariak eta bolumenak.

a) 1., 2. isurketa: Industria-urak.

| | |
|---|---|
| Orduko puntako emaria | 0,69 l/s |
| Eguneko gehienezko bolumena | 600,28 $m^3$/egun |
| Urteko gehienezko bolumena | 180.084 $m^3$/urte |

b) 1. isurketa: Kutsatuta egon daitezkeen euri-urak.

| | |
|---|---|
| Urteko gehienezko bolumena | 37.830 $m^3$/urte |
| Orduko puntako emaria | 167.112 l/ordu |

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Langileen zerbitzu higienikoen ura kolektore nagusira isurtzeak Gasteizko Udalaren kolektorera isurtzea arautzen duen erregelamenduan jasotako mugak eta baldintzak bete beharko ditu, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Hozteko zirkuituak husteko arautze egoki baten bidez kontuan hartu eta bermatu behar den protokoloa hauxe da:

1.– Husteko gutxieneko denbora: 72 ordu.

2.– Hondar-kloro askea erreaktiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, etab. ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

3.– Putzuaren hondoan metatutako lohiak kendu eta hustea, hori isurtzea derrigorrez saihestu behar baita.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek honako jarduera hauek barne hartzen dituzte funtsean:

Instalazioak isurketak arazteko bi sistema ditu:

Arraspen dekantagailua: Ponpaketak bultzatutako arrabolen itzulerako urari dekantazio-tratamendu bat ematen zaio solidoak ezabatzeko. Arazteko prozesua herdoil-azaleko putzuan hasten da. Bertan, zilindrotako hozte-urak arrastatutako partikula lodienak dekantatzen dira.

Neutralizatze-instalazioa: instalazio honen helburu da, metalak dituzten desugertze-lerroen garbiketetatik datozen ur azidoen isurketen tratamendu fisiko eta kimikoa; desugertze-lerroetatik datozen etengabeko efluenteak (zumitz-ikuzketa, gas-ikuzketa eta ARS) ur azidoen putzura bidaltzen dira. Putzu honetatik emari iraunkorra duten urak neutralizatze-instalaziora igortzen dira. Hona hemen tratatuko den gehienezko emaria: 5 $m^3$/ordu eguneko 24 ordutan.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Laminaciones Arregui SL enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako

baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplika dakiekeen berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, ahal izanez gero instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Gasteizeko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

● 1. prozesua: «Ijeztea eta totxoa berriz berotzea».

○ 1. hondakina: «erregogor estaldura».

– Identifikazioa: B01218932/10000000681/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q16//D15//S40//C25//H7//A231(1)//B3122.

– HEZ: 170601.

– Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Labeko hormak erretiratzeko lanetan sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

● 2. prozesua: «Zumitzaren luzetarako ebaketa».

Prozesu honetan sortzen diren hondakin arriskutsuak beste prozesu batzuetako izen bereko beste batzuekin kudeatzen dira; batera kodifikatuta agertuko dira Zerbitzu Orokorrak prozesuan.

● 3. prozesua: «Zumitza desugertzea».

Prozesu honetan sortzen diren hondakin arriskutsuak beste prozesu batzuetako izen bereko beste batzuekin kudeatzen dira; batera kodifikatuta agertuko dira Zerbitzu Orokorrak prozesuan.

● 4. prozesua: «Hodi ekoizpena».

○ 1. hondakina: «Mekanizazioko lohiak».

– Identifikazioa: B0128932/1000000681/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//P8/27//C51//H5//A231(1)//B3124.

– EHZ: 120114.

– Urtean sortutako kantitatea: 43 tona.

Ijezketa-treneko arrabol-tailerrean zein taladrinaren zirkuituan sortzen dira hodi-konformazioko lerroetan. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

● 5. prozesua: «galbanizazioa, akabera eta igortzeak».

○ 1. hondakina: «Koipegabetze lohiak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/5/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//D9//L8//C51/23//H5/8//A231(1)//B3301.

– EHZ: 120301.

– Urtean sortutako kantitatea: 26,4 tona.

Galbanizazio-lerroetan kokatutako koipegabetze-upeletan sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako metalezko kaioladun plastikozko edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Alkali bainua».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/5/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//L21//C24//H8//A1231(1)//B3301.

– EHZ: 110107.

– Urtean sortutako kantitatea: 6,08 tona.

Nikela estaltzeko prozesuan sortzen da; bainu agortu alkalinoak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako metalezko kaioladun plastikozko edukiontzian jasotzen da hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 3. hondakina: «Flux-prefluxeko opilak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/5/3.

– Hondakinaren kodea: Q8//D5//S27//C7//H5//A231(1)//B3301.

– EHZ: 110109.

– Urtean sortutako kantitatea: 68,78 tona.

Zink-estaldurako urak iragaztean sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «Zink kloruroak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/5/4.

– Hondakinaren kodea: Q8//R4//S22//C27//H14//A231(1)//B3301.

– EHZ: 110504.

– Urtean sortutako kantitatea: 93,42 tona.

Galbanizazio-lerroan dagoen zink-upelean sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den lekuan edo lekuetan; bidoia bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 5. hondakina: «Azido agortua».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/5/5.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13//L27//C23//H8//A231(1)//B3301.

– EHZ: 110105.

– Urtean sortutako kantitatea: 3545 tona.

Azido agortuaren osagaiak: zumitz zein hodiko desugertze-upeletan sortzen den kloruro ferrosoa, lohiak. Zuzenean erretiratzen da erabilera-puntutik, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

● 6. prozesua: «Gas efluenteak araztea».

○ 1. hondakina: «Zink hautsak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/6/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R4//S25//C7/18//H3/4//A231(1)/B0011.

– EHZ: 110503.

– Urtean sortutako kantitatea: 121 tona.

Zinkez estalitako tratamenduko gasak iragaztean sortzen da. Hautsak honako metal hauez osatuak daude: % >98.5 zink eta % <1 beruna. Hondakina mekanikoki atera eta zuloetara eramaten da. Bertatik erretiratzen da baimendutako kudeatzaile bati emateko.

● 7. prozesua: «Hondakin uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «Kare neutralizatua».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/7/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//D9//L9//C51//H5//A231(2)//B0006.

– EHZ: 060201.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 tona.

Noizean behin sortzen da dekantagailua garbitzean edo prozesuko ur azidoak neutralizatzeko upelean. Hondakina metalezko kaioladun plastikozko edukiontzitan biltzen da. Edukiontzi horiek hondakina sortzen den lekuan edo lekuetan egoten dira eta hondakin hori botatzeko direla adierazten dute. Edukiontziak bete ondoren hondakin arriskutsuen biltegira eramaten dira, baimendutako kudeatzailearen bidez kudeatzeko.

● 8. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio erabiliak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A231(1)//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 12,4 tona.

Zenbait makinatan olioa aldatzeko eragiketetan sortzen da; olio mekaniko eta hidrauliko erabiliak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako metalezko kaioladun plastikozko edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Ura duten hidrokarburoak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//L9//C51//H6//A231(1)//B0019.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 16 tona.

Biltegi bat garbitzean sortzen da tarteka. Hondakin horrentzat identifikatutako metalezko kaioladun plastikozko edukiontzian jasotzen da hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 3. hondakina: «Erabilitako disolbatzailea».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/3.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3b/5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,915 tona.

Tresneria eta piezak garbitzerakoan sortzen da; erabilitako disolbatzaile ez-halogenatua da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den postuan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «Objektu ebakitzaileak eta zorrotzak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/4.

– Hondakinaren kodea: Q16//D14//S1//C35//H9//A231(1)//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 4 edukiontzi.

Zerbitzu Medikuaren azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaileak eta zorrotzak dira. Edukiontzi hermetiko batean gordetzen da, botikinean; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio baimendutako kudeatzaileari.

○ 5. hondakina: «Gai arriskutsuak dituzten solido bustiak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/5.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 16 tona.

Xurgatzaileak eta ehunak bildu eta elkartzean sortzen da; olioz eta disolbatzailez bustitako trapuak eta gai xurgatzailea dira. Hondakinarentzat identifikatutako big-bagean biltzen da, sortzen den postuan edo postuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 6. hondakina: «Gai arriskutsuen hondakinak dituzten plastikozko ontzi hutsak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/6.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 71 GRG.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak eta disolbatzaileak eduki dituzten plastikozko ontziak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 7. hondakina: «Gai arriskutsuak dituzten metalezko ontzi hutsak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/7.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 16 bidoi.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak eta disolbatzaileak eduki dituzten metalezko ontziak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 8. hondakina: «Amiantodun materialak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/8.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//S40//C25//H7//A231(2)//B0019.

– EHZ: 170601.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,04 tona.

Tarteka sortzen da, instalazioaren mantentze orokorraren edo eraisteko eragiketa puntualen ondorioz. Hondakinaren jatorria kontuan hartuta, laneko segurtasunaren arloan indarrean den araudiaren arabera biltzen da.

○ 9. hondakina: «Poliklorobifeniloa duten aparatuak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/9.

– Hondakinaren kodea: Q12//D15-R13//S-L10//C32//H6/7//A213//B0019.

– EHZ: 160209.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 tona.

Tarteka sortzen da, barruan poliklorobifeniloa duten dielektrikoak barruan daramaten ekipoak (transformadoreak) erretiratzean.

○ 10. hondakina: «Garbiketa urak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/10.

– Hondakinaren kodea: Q10//D9//L9//C51//H5//A231(2)//B0019.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 tona.

Garbiketa-lanen ondorioz sortzen dira. Hondakina metalezko kaioladun plastikozko edukiontzitan biltzen da. Edukiontzi horiek hondakina sortzen den lekuan edo lekuetan egoten dira eta hondakin hori botatzeko direla adierazten dute. Edukiontziak bete ondoren hondakin arriskutsuen biltegira eramaten dira, baimendutako kudeatzailearen bidez kudeatzeko.

○ 11. hondakina: «Osagai arriskutsuak dituzten baztertutako ekipo elektriko eta elektronikoak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/11.

– Hondakinaren kodea: Q14//R13/S40/C42//H6/14//A231(2)//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,04 tona.

Instalazioak mantentzeko lanetan edo ekipoak aldatzean sortzen dira. Batez ere osagai elektroniko zaharkituak edo hondatuak dituzten piezak edo ekipoak dira. Hondakina edukiontzitan biltzen da baimendutako kudeatzaileak jaso baino hainbat egun lehenago.

○ 12. hondakina: «Halon 1301».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/12.

– Hondakinaren kodea: Q16//D15/R13//G16//C42//H4//A892//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 19 su itzalgailu.

Baimendutako kudeatzaileari entregatzeko biltzen diren botilak dira.

○ 13. hondakina: «Ura olioarekin».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/13.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//L9//C51//H5//A231(2)//B0019.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 tona.

(I) arraspen dekantagailuaren skimmerrean, (2) ijezketa-trenaren zentralitetan eta (3) taladrinaren hozte-zirkuituan sortzen da. Hondakina metalezko kaioladun plastikozko edukiontzitan biltzen da. Edukiontzi horiek hondakina sortzen den lekuan edo lekuetan egoten dira eta hondakin hori botatzeko direla adierazten dute. Edukiontziak bete ondoren hondakin arriskutsuen biltegira eramaten dira, baimendutako kudeatzailearen bidez kudeatzeko.

○ 14. hondakina: «Ur azidoak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/14.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C7-23//H8//A231(2)//B0019.

– EHZ: 110105.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 tona.

Garbiketetan sortzen da tarteka. Sortzen den puntutik (neutralizazio-upelak) zuzenean erretiratzen da kamioi xurgatzaile baten bitartez. Baimendutako kudeatzaileak garraiatzen du zisterna-kamioi batean.

○ 15. hondakina: «Taladrinak».

– Identifikazioa: B01218932/1000000681/8/15.

– Hondakinaren kodea: Q10//D9//L9//C51//H5//A231(2)//B0019.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 80 tona.

Urarekin nahastutako gai oliotsuen bilketetan sortzen da. Baimendutako kudeatzailearen bidez kudeatzen da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten hondakin-tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Azido agortuko hondakina zuzenean jaso behar da sortzen den instalazioko andeletatik, aurretik ontziratu eta biltegiratu gabe, eta kudeatzaile baimenduari eman behar zaio.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko puntuan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

e) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta gordetzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

f) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

g) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

h) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Laminaciones Arregui SL enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

i) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

j) Laminaciones Arregui SL enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako industria-olio erabiliak.

k) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, aurreikusitako baimendutako kudeaketa-sistema bateratu bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenaren, aurreikuspenak bete beharko ditu Laminaciones Arregui SL enpresak.

l) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

m) Laminaciones Arregui SL enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren

24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Laminaciones Arregui SL enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Laminaciones Arregui SL enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

o) Laminaciones Arregui SL enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

p) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

q) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Laminaciones Arregui SL enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

r) Aurreko g), h) (kudeatzaileak EAEn daudenean), o) eta p) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

s) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Laminaciones Arregui SL enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

| Hondakinaren izena | EHZ kodea | Zein prozesuri lotuta | Zenbatetsitako ekoizpena (t/urtea 2005ean) |
|---|---|---|---|
| Tonerra | 080318 | Zerbitzu orokorrak | 230 unitate (80 kartutxo eta 150 toner) |
| Herdoil-azala | 100210 | Beroan ijeztea | 7244,6 t |
| Lohi ferrikoak | 100212 | Beroan ijeztea | 2.100 t |
| Txatarra ijezketa | 100299 | Zumitz galbanizatuaren luzetarako ebaketa | 6482,4 t |
| Txatarra hodia | 100299 | Beroan ijeztea | 691 t |
| Laharrak | 110501 | Galbanizazioa | 485,2 t |
| Errautsak | 110502 | Galbanizazioa | 208,7 t |

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetez baino gehiago biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua balioztatzea denean, 2 urtez eduki ahal izango dira biltegiratuta.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Laminaciones Arregui SL enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c), d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

g) «Lohi ferrikoak» hondakina hurrengoan hustu aurretik, eta hori ezabatzeko ezarri den kudeaketa-modua burutu ordez, karakterizazio bat egingo da, hori baliotu edo berreskuratzeko bideraezintasuna justifikatzearren. Hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen Europako hondakinen zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela ezartzen bada, ebazpen honetako B.1.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Laminaciones Arregui SL enpresak honako informazioa aurkeztu beharko du:

● Hautsezko gaiak ahalik eta gutxien arrastatzea ondoko neurri orokorrak aplikatuz:

○ Hautsezko gaiak siloetan, pabiloi barruan, edo horrelakorik ezean, haizetik hobekien babestutako tokietan gorde.

○ Haize gogorra dabilenean hautsezko solidoak manipulatzea saihestu.

○ Materialak deskargatzeko altuera mugatu.

● Isurketek, jarioek edo ihesek kaltetu ditzaketen lursaileko gainazal guztiak zolatuak eta irazgaiztuak egongo dira.

● Isurketak, jarioak edo ihesak eragozteko moduan biltegiratuko dira lehengaiak, erregaiak eta produktuak.

● Era horretan, ontzi mugikorretan zein finkotan gordetako produktu kimiko likido guztiek (batez ere substantzia eta prestakin arriskutsuak) eta gordetako erregai likidoek jarioak biltzeko sistema izango dute.

● Produktu kimikoak gordetzeari buruz indarrean dagoen araudiak eragindako biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Petrolio-instalazioei buruz indarrean dagoen araudiak eragindako biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Egiaztapen horiek egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

● Hondakinak biltegiratzeko aurreko ataletan jada adierazi diren jarraibideak hartuko dira kontuan.

● Hondakin metalikoak barruan edo, hala ezin bada, estalkipean biltegiratuko dira, lixibiatuak lurzorura eta uretara ahalik eta gutxien heltzeko.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Jarduera maila hauetara egokituko da: kanpoaldeko zarata-maila ezin izango da inoiz ere 70 dB (A) baino handiagoa izan, egunez zein gauez. Balio hori zarata jarraituari dagokio, inpaktuko zaratarako 3 dB(A) gehituko dira. Kanpoaldeko zarata-maila gisa ulertuko da, Gasteizko Zarata eta Bibrazioei buruzko Ordenantzaren II. Eranskinean xedatutakoaren arabera neurtuta, soinu-iturri jakin batek eragiten duen kanpoaldeko espazio librean dagoen $L_p$A soinu-presioaren maila haztatua.

b) Jarduera maila honetara egokituko da: inguruko industria-establezimenduetan barrualdeko zarata-maila ezin izango da inoiz ere 55 dB (A) baino handiagoa izan, egunez zein gauez. Balio hori zarata jarraituari dagokio, inpaktuko zaratarako 3 dB(A) gehituko dira.

Barrualdeko zarata-maila gisa honako hau ulertuko da: Gasteizko Zarata eta Bibrazioei buruzko Ordenantzaren I. Eranskinean xedatutakoaren arabera neurtuta, eraikinean bertan edo aldameneko beste batean dagoen beste barruti batean funtzionatzen ari den soinu-edo bibrazio-iturri batek sortuta, barruti baten barruan dagoen LPA soinu-presioaren maila haztatua. Hirugarren sektorerako hona hemen mugak: 40 dB(A) egunez (08:00ak eta 22:00ak bitartean) eta 35 dB(A) gauez (22:00ak eta 08:00ak bitartean).

c) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Laminaciones Arregui SL enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

| Fokua | Foku-kodea | Fokuaren izena | Neurtu beharreko parametroak | Kontrolen maiztasuna |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 1000240-01 | Totxoa berotzeko labea | Guztizko partikulak | 3 urte |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | |
| | | | Karbono monoxidoa (CO) | |
| 2 | 1000240-02 | Berreskuratze-galdara | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | 5 urte |
| | | | Karbono monoxidoa (CO) | |
| 3 | 1000240-03 | Ijezketa-trena | Guztizko partikulak | 3 urte |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | |
| | | | Karbono monoxidoa (CO) | |
| | | | Konposatu Organiko Guztizkoak (KOG) | |
| 4 | 1000240-04 | Xurgatzea desugertze-upelak | Guztizko partikulak | 3 urte |
| | | | Azido klorhidrikoa (HCl) | |
| 5 | 1000240-05 | Desugertze-galdara | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | 5 urte |
| | | | Karbono monoxidoa (CO) | |
| 6 | 1000240-06 | AF-80 soldadura | Guztizko partikulak | 5 urte |
| 7 | 1000240-07 | AF 81 soldadura | Guztizko partikulak | 5 urte |
| 8 | 1000240-08 | AF 82 soldadura | Guztizko partikulak | 5 urte |
| 10 | 1000240-10 | AF-80 zerra | Guztizko partikulak | 5 urte |
| 11 | 1000240-11 | AF-81 zerra | Guztizko partikulak | 5 urte |
| 12 | 1000240-12 | Desugertze eta galbanizatzeko upela (ezk.) | Guztizko partikulak | 3 urte |
| | | | Azido klorhidrikoa (HCl) | |
| | | | Zinka (Zn) | |
| 13 | 1000240-13 | Desugertze eta galbanizatzeko upela (erdi) | Guztizko partikulak | 3 urte |
| | | | Azido klorhidrikoa (HCl) | |
| | | | Zinka (Zn) | |
| 14 | 1000240-14 | Desugertze eta galbanizatzeko upela (eskuin) | Guztizko partikulak | 3 urte |
| | | | Azido klorhidrikoa (HCl) | |
| | | | Zinka (Zn) | |
| 15 | 1000240-15 | Lehortze-labea | Guztizko partikulak | 3 urte |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | |
| | | | Karbono monoxidoa (CO) | |
| | | | Konposatu Organiko Guztizkoak (KOG) | |
| | | | Azido klorhidrikoa (HCl) | |
| 16 | 1000240-16 | Zink-upela | Guztizko partikulak | Urtero |
| | | | Azido klorhidrikoa (HCl) | |
| | | | Zinka (Zn) | |
| 17 | 1000240-17 | Hodi-puztea | Guztizko partikulak | 3 urte |
| | | | Zinka | |
| 18 | 1000240-18 | Galbanizazio-galdara | Nitrogeno oxidoak ($NO_X$) | |
| | | | Karbono monoxidoa (CO) | |
| 19 | 1000240-19 | AF-50 soldadura | Guztizko partikulak | 5 urte |
| 21 | 1000240-21 | AF-50 zerra | Guztizko partikulak | 5 urte |
| 22 | 1000240-22 | AF-81 zerra | Guztizko partikulak | 5 urte |

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurri, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Edonola ere, botatako gai poluitzaileen kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzak ezarritako eskakizun tekniko guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Derrigorrezkoa da ur tratatua neurtzeko pH-neurgailu jarraiki bat eta isuritako uren emari-neurgailu bat izatea, neurketaren tokiko adierazlea, beharrezko bi puntutan alarmak, eta datu historikoak gordetzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua dutenak. Horiek Administrazioaren esku egon beharko dute gainera.

b) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

| Isurketa-puntua | Kontrolatu beharreko fluxua | Neurtu beharreko parametroak | Kontrolen maiztasuna | Kontrol-mota |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Euri-ur zikinak Industrialak Sanitarioak | pH-a, emaria | Jarraikia | Autokontrola |
| | | pH-a | Urtero | Kanpokoa |
| | | Solido esekiak (SS) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Kloruroak (Cl-) | Urtero | Kanpokoa |
| | | OEK | Urtero | Kanpokoa |
| | | Olio eta koipeak (O. eta K.) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Burdina (Fe) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Zinka (Zn) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Kobrea (Cu) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Manganesoa (Mn) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Molibdenoa (Mo) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Guztizko fosforoa ($P_{guztizkoa}$) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Konposatu organiko halogenatuak (AOX) | Urtero | Kanpokoa |
| 2 | Industrialak | pH-a, emaria | Jarraikia | Autokontrola |
| | | pH-a | Urtero | Kanpokoa |
| | | Solido esekiak (SS) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Kloruroak (Cl-) | Urtero | Kanpokoa |
| | | OEK | Urtero | Kanpokoa |
| | | Olio eta koipeak (O. eta K.) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Burdina (Fe) | Urtero | Kanpokoa |
| 2 | Industrialak | Zinka (Zn) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Kobrea (Cu) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Manganesoa (Mn) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Molibdenoa (Mo) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Guztizko fosforoa ($P_{guztizkoa}$) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Konposatu organiko halogenatuak (AOX) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Fluoruroak ($F^-$) | Urtero | Kanpokoa |
| | | Zianuroak (CN-) | Urtero | Kanpokoa |
| | | KOG | Urtero | Kanpokoa |
| | | Hidrokarburo polizikliko aromatikoak | Urtero | Kanpokoa |
| | | Beruna (Pb) eta osagaiak | Urtero | Kanpokoa |
| | | Nikela (Ni) eta konposatuak | Urtero | Kanpokoa |
| | | Kobrea (Cu) eta konposatuak | Urtero | Kanpokoa |
| | | Kromoa (Cr) eta osagaiak | Urtero | Kanpokoa |
| | | Kadmioa (Cd) eta konposatuak | Urtero | Kanpokoa |
| | | Artsenikoa (As) eta konposatuak | Urtero | Kanpokoa |
| | | Guztizko nitrogenoa | Urtero | Kanpokoa |

c) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta aurreko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

e) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen baditu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

| Adierazlea | Unitatea |
|---|---|
| Produktu bakoitzetik sortutako kantitatea | Tonak |
| Produkzio-unitate bakoitzeko ur-kontsumoa | $m^3$/ t produktua |
| Produkzio-unitate bakoitzeko energia elektrikoaren kontsumoa | Kwh/t produktua |
| Gai hauen isurketak: partikulak, $SO_2$, KOHak, HCl eta $Cl_2$ | mg/$Nm^3$ |
| $NO_x$ eta CO isurketak | ppm |
| $CO_2$ eta $O_2$ isurketak | % |
| Neutralizazioko isurketako uren pH-ren eta Fe-ren neurketa jarraikia | pH eta mg Fe/$Nm^3$ |
| Ondorengo parametroen zilindroen zirkuituko gainezkaldi-uren neurketak: pH Olioak eta koipeak. OEK, $DBO_5$, Solido Esekiak, Burdina eta Solido Jalkigarriak. | - , mg/l, mg $O_2$/l, mg $O_2$/l, mg/l, mg/l, ml/l |
| Produkzio-unitate bakoitzeko sortutako hondakin geldoen guztizko kantitatea | Tona hondakin/tona produktu |
| Produkzio-unitate bakoitzeko sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea | Tona hondakin/tona produktu |

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30 baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Arabako Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Sustatzaileak adierazi du ijezketa-treneko uren zirkuituen garbiketa eta garbiketa orokorrak urtean bitan egiten direla. Galbanizazio-instalazioa bi urtez behin gelditzen da, eta galbanizazio-upelak garbitzen dira. Desugertze-instalazioa urtero gelditzen da eta garbitzen da. Zumitz-desugertzeko instalazioa astero gelditzen da eta ijezketa-trenaren instalazioa bi astez behin.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27220 epigrafea «Altzairuzko hodien fabrikazioa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Laminaciones Arregui SL enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako dokumentazioan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazkaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera,

balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, zorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Erregaiak, zepak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta orokorrean, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak irazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak gordetzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

k) Nabeen barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

l) Bereizgailuan metatutako lohiak, olioak eta koipeak aldian-aldian kendu behar ditu baimendutako kudeatzaile batek. Isuriaren kantitateari eragiteko moduko mailetan metatzea saihestuko da.

m) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

n) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

o) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

p) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

q) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu horretan, honako baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

Berme-neurri gisa, pH-aren eta redox-aren zunda bikoitza eduki behar da arazte-prozesuko puntu kritikoetan, eta kontsigna-puntuen desbideratzeei dagozkien alarmak jarri.

Gainera, ebazpen honen XX atalean ezarritako jarduketez gain, haustura, ustekabeko gainezkaldi eta abarren ondorioz gerta daitezkeen isuriei eusteko, gasolioa biltegiratzeko eta manipulatzeko instalazioak modu egokian isolatuko dira.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez.

Halaber, prozesuaren funtzionamendu egokiaren ustiapen- eta zaintza-eskuliburua izango da. Aldizka egindako mantentze-lanen eta kontrolen eragiketak, zein antzemandako gorabeherak jasoko dira bertan, eta enpresa espezializaturen bat bertaratzea aholkatzen da.

r) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (beste hainbaten artean, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa ditzaketen hondakinak, erregaiak edo substantzien isurketa garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

s) Gertakari edo arazo larriren bat gertatzen bada, edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

t) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Laminaciones Arregui SL enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi-net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1.g) eta B.1.3.2.c) (Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak onartzeko dokumentuak); B.1.3.1.p) eta B.1.3.2.e) (Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak erregistratzeko ereduak); B.1.3.1.m) (poliklorobifeniloa dutenaren adierazpena); B.1.4 (Lurzorua babesteko neurriak); C.1 (Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea); C.1.1 (Atmosferara egiten diren isuriak erregistratzeko eredua); C.2.a) (kontrol-sistemak jarraikian neurtzeko); C.6 (Ingurumena Zaintzeko Programaren dokumentu bategina); D.1 (Aurreikusitako geldialdietan sortutako isurketen eta hondakinen balioespena); D.3.a) (Prebentzioko mantentze-lanetarako eskuliburua); D.3.h) (Produktu kimikoak gordetzeko ziurtagiriak); D.3.i) (larrialdi-kasutarako materialen zerrenda); D.3.j) (kubetak husteko eragiketaren protokoloa) eta D.3.t) (suteen aurkako babesei buruzko ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bostgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Laminaciones Arregui SL enpresak Ebazpen honen xede den «burdinarik gabeko metalak berriz urtzeko» jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Laminaciones Arregui SL enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Laminaciones Arregui SL enpresari, Gasteizko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondorengoetan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 18a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.